

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

Espediente-zenbakia: 2025/IDA\_ERA\_0033

Xedea

2025 000002952

**Gidabaimena euskaraz prestatu eta** ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 31n gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea erabaki zuen.

Hirugarrena: aldaketaren erabakia 2023ko maiatzaren 12ko 91 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Laugarrena: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak prestatuta daude, euskeraz eta elebiz.

Bosgarrena: gastu honetarako 300€ daude Euskera Sailaren 01400 33540 4800102 partidan.

Seigarrena: udaleko kontu-hartzaileak aldeko txostena egin zuen 2025eko maiatzaren 14an.

Zazpigarrena: gastu honek beharrezko atxikipena eginda du (2025/000351).

**Argudioak**

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazonatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz zinegotzi delegatuak dauka eskuordetuta.

**Erabakia**

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabaki da:

**LEHENENGOA:** Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orriak onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

**BIGARRENA:** 300€-ko gastua onartzea Euskera Sailaren 01400 33540 4800102 partidaren pentzura.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.

Kodea:

07E900131BA200Z9P4L2V6E8F8

**Sinadurea eta data**

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/05/2025  
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/05/2025 16:22:16

EXPEDIENTE ::  
2025IDA\_ERA\_0033

Data: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

LAUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.

**GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK**

**ESPARRUA: EUSKARA**

<b>UDAL SAILA:</b>	<b>EUSKARA</b>
<b>INSTRUKTOREA:</b>	Euskera teknikaria
<b>BALORAZIO BATZORDEA:</b>	Euskera Saila
<b>DIRULAGUNTZA EBATZIKO ORGANOA:</b>	<b>DUEN</b> Zinegotzi arduraduna
<b>EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:</b>	Ebazteko eta jakinarazteko hilabeteko epea egongo da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.
<b>DIRULAGUNTZAREN LERROA:</b>	Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntza
<b>KODEA:</b>	2025/IDA_ERA_0033
<b>AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:</b>	<b>DIRU-</b> Partida zenbakia: 01400-33540-4800102 2025ean 300€ Datozen urteetan, urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea</li> <li>Euskararen erabilera sustatzeko udalerriko eragileekin batera ekimenak eta programak bideratzea</li> </ul>
<b>EPEAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eskariak</b> aurkezteko epea, hilabetekoa izango da, hain zuzen, urria.</li> <li><b>Justifikazioak:</b> Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren bitartez.</li> </ul>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E900131BA200Z9P4L2V6E8F8

**Sinadurea eta data**

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/05/2025  
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/05/2025 16:22:16

EXPEDIENTE ::  
2025IDA\_ERA\_0033

Data: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



**BALORAZIO  
ZEHATZAK:**

**IRIZPIDE**

- Bermeon erroldatuta egotea
- Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatzea
- B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz eginda eta gaudituta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen
- Bermeoko Udalarekin, ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E900131BA200Z9P4L2V6E8F8

**Sinadurea eta data**

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/05/2025  
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/05/2025 16:22:16

EXPEDIENTE ::  
2025IDA\_ERA\_0033

Fecha: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



<b>HIZKUNTZA IRIZPIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diruz lagunduko direnen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz bideratuko dira.</li> </ul>
<b>ESKATZAILEAK:</b>	Bermeon erroldatuta egon eta B mailako gidabaimena ateratzeko azterketateorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak.
<b>DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK</b>	<p>Gidabaimena prestatzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzea.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek 150 euroko dirulaguntza jasoko dute.</p>
<b>PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:</b>	<p><u>Diru-laguntza emateko prozedura:</u> konkurrentzia lehiakorra izango da, bainakonparaziozko baliospenik egin barik.</p> <p>Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin, edozein izaerakoa bada ere. Dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere, guztiak batuta diruz lagundu daitekeen kostuaren % 100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, instruktoreak egindako txosten teknikoaren ostean.</p> <p>Deialdi honetan aurreikusi ez direnak instruktoreak eta zinegotzi delegatuak zuzenean ebatziko dituzte, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.</p> <p><u>Aurkeztu beharreko agiriak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaera-orria beteta</li> <li>- Nortasun Agiriaren fotokopia</li> <li>- Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoeuskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria</li> <li>- Ogasunarekin zorrik ez izatearen agiria.</li> <li>- Gizarte Segurantzarekin eta Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatearen agiria, edo udalak egiaztatu ahal izateko berariazko baimenak.</li> </ul>
<b>AURREIKUSITAKO KOSTUAK:</b>	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera. <b>2025. urterako 300 €</b>



<b>JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diruz lagundutako gidabaimen kopurua</li> <li>• Gidabaimenaren azterketa teorikoa gainditu duten pertsonetatik, diruz lagundutako gidabaimen kopurua</li> </ul>
<b>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</b>	Gidabaimenaren atala teorikoa euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntzen eskaera-orria
<b>GENERO ERAGINA</b>	Bat ere ez
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.  EZ

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E900131BA200Z9P4L2V6E8F8

**Sinadurea eta data**

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/05/2025  
 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/05/2025 16:22:16

EXPEDIENTE ::  
2025IDA\_ERA\_0033

Fecha: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

